



Euskadiko turismo-industriaren profila, 2023

Perfil de la industria turística en Euskadi, 2023

Aurkibidea

Índice

1. Helburuak eta metodologia	
Objetivos y metodología	3
1.1. <i>Sarrera eta helburu orokorrak</i>	
Introducción y objetivos generales	4
1.2. <i>Deskribapen metodologikoa</i>	
Descripción metodológica	5
1.3. <i>Bigarren mailako iturriak</i>	
Fuentes secundarias	8
2. Euskadiko turismo-industriaren enpresa-jardueren ezarpena eta bilakaera	
Implantación y evolución de las actividades empresariales de la industria turística en Euskadi	9
2.1. <i>Euskadiko turismo-industriaren kuantifikazioa eta bilakaera</i>	
Cuantificación de la industria turística en Euskadi y evolución	10
2.2. <i>Euskadiko turismo-industriaren jardueren ezaugarriak</i>	
Caracterización de las actividades de la industria turística en Euskadi	11
2.3. <i>Euskadiko turismo-industriaren jardueren azken aldiko bilakaera</i>	
Evolución reciente de las diferentes actividades de la industria turística en Euskadi	18
2.4. <i>Euskadiko turismo-industriaren Gizarte Segurantzako afiliazioak</i>	
Las afiliaciones a la Seguridad Social de la industria turística en Euskadi	27
3. Euskal turismo-industria helmuga turistikoetan	
La industria turística vasca en los destinos turísticos	32
3.1. <i>Turismo-industriaren ikuspegi konparatua helmuga turistikoka</i>	
La visión comparada de la industria turística por destinos turísticos	33
3.2. <i>Helmuga turistiko desberdinen turismo-industriaren ezaugarriak eta bilakaera</i>	
Caracterización de la industria turística de los diferentes destinos turísticos y evolución	36
3.2.1. <i>Gasteiz</i>	
Vitoria – Gasteiz	36
3.2.2. <i>Bilbo</i>	
Bilbao	45
3.2.3. <i>Donostia</i>	
Donostia / San Sebastián	54
3.2.4. <i>Euskal Kostaldea</i>	
Costa Vasca	63
3.2.5. <i>Barrualdea</i>	
Interior	72
3.2.6. <i>Arrabako Errioxa</i>	
Rioja Alavesa	81
4. Azken gogoetak	
Consideraciones finales	89

1

Helburuak eta metodologia
Objetivos y metodología

1.1. Sarrera eta helburu orokorrak

1.1. Introducción y objetivos generales

Basquetourrek urteak daramatza Euskadiko Turismo Industriaren Barometroan Euskadiko turismoaren sektorea osatzen duten enpresen egoera eta profila aztertzen, bai eta epe laburrerako aurreikuspenak ere, politikak eta/edo lehentasunak ezartzeko, jarduera edo helmuga zehatzen ondoriozko egoera kontuan hartuta. Orain arte, jatorriz turismo-industriarekin lotutako enpresa-jarduera batzuei buruzko azterketari ekin zaio, hala nola ostatu-zerbitzuei, bidaiia-agentzia handizkariari eta bidaiia-agentziei buruzkoa. Hala ere, turismo-industriaren definizioa zabaltzen joan da denborarekin, eta gero eta gehiago dira hura osatzen duten sektoreak eta aktiboak. Era berean, turismo-instantzia eta -erakunde ofizialek normalizazio-ariketa bat egitearen alde egiten dute, turismo-industria osatzen duten jarduera ekonomikoen ikuspegi estandarizatua eskainiz.

Basquetourrek euskal turismo-industriaren definizioaren normalizazioan aurrera egitea proposatzen du, marko orokor bat ezarriz, Euskadiko sektorearen errealitatearen argazki finko bat, azken finean horri buruzko etorkizuneko ikerketetan erabakiak hartzeko erreferentzia izango dena.

Txosten honen helburua, beraz, turismo-industria osatzen duten enpresa-jarduerak definitzea da beste erakunde ofizial batzuen jarduerarekin bat eginda, eta jarduera-azpisektoreen araberako pisua, analisi-unitateen araberako ordezkariak (helmuga turistikoak esaterako) deskribatuta. Gainera, azken urteetan izandako bilakaera neurtu ahal izango da.

Basquetour lleva años analizando en el Barómetro de la Industria Turística de Euskadi la situación y perfil de las empresas que conforman el sector del turismo en Euskadi, así como las perspectivas para el corto plazo, con el fin último de establecer políticas y/o prioridades atendiendo a la situación resultante en las distintas actividades o destinos concretos. Hasta la fecha, se ha abordado el análisis sobre una serie de actividades empresariales originariamente vinculadas con la industria turística, como son los servicios de alojamiento o los operadores turísticos y agencias de viaje. Sin embargo, la definición de industria turística ha ido ensanchándose con el tiempo y cada vez son más y más diversos los sectores y activos que la integran. Asimismo, desde las instancias y organismos oficiales de turismo se aboga por realizar un ejercicio de normalización, ofreciendo una visión estandarizada de las actividades económicas que constituyen la industria turística.

Basquetour se propone avanzar en la tarea de normalización en la definición de la industria turística vasca, estableciendo un marco general, una foto fija de la realidad del sector en Euskadi, que a la postre, sirva de referencia para la toma de decisiones en futuras investigaciones sobre el mismo.

El objetivo del presente informe por tanto, es la definición de las actividades empresariales que conforman la industria turística, alineado con la de otros organismos oficiales, describiendo su peso por subsectores de actividad, su representatividad por unidades de análisis como los Destinos Turísticos, pudiendo además medir su evolución en los últimos años.

1.2. Deskribapen metodologikoa

1.2. Descripción metodológica



Turismo-industria osatzen duten jarduera-epigrafeak identifikatzea
 Identificación de epígrafes de actividad que conforman la industria turística



Bigarren mailako iturriak biltzea
 Recopilación de fuentes secundarias



Datuen tratamendua eta analisi-aldagaiak sortzea
 Tratamiento de datos y creación de variables de análisis



Datuen analisia eta irakurketa
 Análisis y lectura de datos

Turismo-industria osatzen duten jarduera-epigrafeak identifikatzea

Identificación de epígrafes de actividad que conforman la industria turística

*Turismo-sektoreko erakunde ofizialen gomendioari jarraituz, turismo-industria osatuko luketen jardueren normalizazioa ezarri da. Horretarako, hainbat erakundek burututako enpresa-jarduerak aztertu dira. Analisia egin ondoren, azkenik, **turismo-industriaren jardueren definizioa Eusko Jaurlaritzaren eta haren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren datuetan jasotako tipologiekin bat egitea erabaki zen**, turismo-sektoreko Gizarte Segurantzako afiliazioei dagokienez.*

Siguiendo la recomendación de los organismos oficiales del sector turístico se procedido a establecer la normalización de las actividades que conformarían la industria turística. Para ello, se han analizado las actividades empresariales utilizadas por diversos organismos. Tras el análisis, finalmente se optó por **alineara la definición de actividades de la industria turística con las tipologías incluidas en los datos del Gobierno Vasco y su Departamento de Turismo, Comercio y Consumo**, sobre las afiliaciones a la Seguridad Social en el sector turístico.

Nabarmentzekoa da erabilitako turismo-industriaren definizioan tradizioz haren esentziaren parte izan diren jarduera-sektoreak daudela, bere core business-a, hala nola ostatu-sektorea edo turismo-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak. Eta, horiekin batera, beste kategoria batzuk ere sartzen dira. Nahiz eta kategoria hauek ez eman zerbitzurik turismo-eskaerari soilik, gero eta eragin handiagoa du turismo-eskaerak hauetan, eta, aldi berean, helmuga turistikoko bat definitzerakoan eta haren izaera ematerakoan garrantzitsuak diren aktiboak dira. Besteak beste, ostalaritza, bidaiarien garraioa edo kultura-industria bera, kirol- eta jolas-industriak bezala.

Cabe destacar la presencia en la definición de industria turística empleada, de sectores de actividad que han formado parte tradicionalmente de su esencia, su *core business*, como es el caso del sector alojativo o las agencias y los operadores turísticos. Y junto a éstos, se incorporan otras categorías si bien no dan servicio a la demanda turística exclusivamente, se ven impactadas por ella cada vez en mayor medida, al tiempo que constituyen activos de relevancia a la hora de definir un destino turístico, de otorgarle su carácter. Entre ellas, actividades como la hostelería, el transporte de pasajeros o la propia industria cultural, al igual que la deportiva y recreativa.

1.1 Taula. Turismo-industriaren jardueren xehetasunak eta dagozkien EJSN-2009ko epigrafeak

Tabla 1.1. Detalle de actividades de la industria turística y sus correspondientes epígrafes de CNAE 2009

Taldea / Grupo	Jarduera mota / Tipo de actividad	EJSN / CNAE
A - Ostatu- eta ostalaritza-zerbitzuak / Servicios de alojamiento y hostelería	A1 – Ostatu zerbitzuak / Servicios de alojamiento	5510- <i>Hotelak eta antzeko ostatuak</i> / Hoteles y alojamientos similares
		5520- <i>Turismo ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk</i> / Alojamientos turísticos y otros alojamientos de corta estancia
		5530- <i>Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak</i> / Camping y aparcamientos para caravanas
		5590- <i>Beste ostatu batzuk</i> / Otros alojamientos
	A2 - <i>Jaki eta edari zerbitzuak</i> / Servicios de comidas y bebidas	5610- <i>Jatetxeak eta janari postuak</i> / Restaurantes y puestos de comidas
		5621- <i>Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako</i> / Provisión de comidas preparadas para eventos
		5629- <i>Beste jaki zerbitzu batzuk</i> / Otros servicios de comidas
		5630- <i>Edari establezimenduak</i> / Establecimientos de bebidas
B - Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak / Agencias de viaje y operadores turísticos	B - <i>Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak</i> / Agencias de viajes y operadores turísticos	7911- <i>Bidaia-agentzien jarduerak</i> / Actividades de las agencias de viajes
		7912- <i>Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak</i> / Actividades de los operadores turísticos
		7990- <i>Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak</i> / Otros servicios de reservas y actividades relacionadas con los mismos /

1.1 Taula. Turismo-industriaren jardueren xehetasunak eta dagozkien EJSN-2009ko epigrafeak (Jarraipena)

Tabla 1.1. Detalle de actividades de la industria turística y sus correspondientes epígrafes de CNAE 2009 (Continuación)

Taldea / Grupo	Jarduera mota / Tipo de actividad	EJSN / CNAE
C - Beste turismo-jarduera batzuk / Otras actividades turísticas	C1 - <i>Bidaiariak garraiatzeko lurreko garraioa / Transporte de pasajeros por carretera /</i>	4931- <i>Bidaiariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa / Transporte terrestre urbano y suburbano de pasajeros</i>
		4932- <i>Taxi bidezko garraioa / Transporte por taxi</i>
		4939- <i>Beste inon sailkatu gabeko bidaiarien garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk / Otros tipos de transporte terrestre de pasajeros n.c.o.p.</i>
	C2 - <i>Bidaiariak garraiatzeko beste garraio mota batzuk / Otro tipo de transporte de pasajeros</i>	4910- <i>Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez / Transporte interurbano de pasajeros por ferrocarril</i>
		5010- <i>Bidaiarien itsas garraioa / Transporte marítimo de pasajeros</i>
		5030- <i>Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik / Transporte de pasajeros por vías navegables interiores</i>
	C3 - <i>Garraioarekin uztartutako jarduerak / Actividades anexas al transporte</i>	5110- <i>Bidaiarien aireko garraioa / Transporte aéreo de pasajeros</i>
		5221- <i>Lurreko garraioarekin uztartutako jarduerak / Actividades anexas al transporte terrestre</i>
		5222- <i>Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik egindakoari uztartutako jarduerak / Actividades anexas al transporte marítimo y por vías navegables interiores</i>
		5223- <i>Aireko garraioarekin uztartutako jarduerak / Actividades anexas al transporte aéreo</i>
		5224- <i>Salgaien manipulazioa / Manipulación de mercancías</i>
	C4 - <i>Garraiorako ekipoen alokairua / Alquiler de equipos de transporte</i>	5229- <i>Garraioarekin uztartutako beste jarduera batzuk / Otras actividades anexas al transporte</i>
		7711- <i>Automobilen eta ibilgailu motordun arinen alokairua / Alquiler de automóviles y vehículos de motor ligeros</i>
		7731- <i>Makineriaren alokairua eta nekazal erabilerako ekipoa / Alquiler de maquinaria y equipo de uso agrícola</i>
		7732- <i>Makineriaren eta ekipoen alokairua eraikuntzarako eta ingenieritza zibilerako / Alquiler de maquinaria y equipo para la construcción e ingeniería civil</i>
		7733- <i>Makineria eta bulegoko ekipoen alokairua, ordenagailuak barne / Alquiler de maquinaria y equipo de oficina, incluidos ordenadores</i>
		7734- <i>Nabigazio baliabideen alokairua / Alquiler de medios de navegación</i>
		7735- <i>Aireko garraio bideen alokairua / Alquiler de medios de transporte aéreo</i>
	C5 - <i>Kultura-industria / Industria cultural</i>	9001- <i>Arte eszenikoak / Artes escénicas</i>
		9002- <i>Arte eszenikoaren jarduera lagungarriak / Actividades auxiliares a las artes escénicas</i>
		9003- <i>Sormen artistikoa eta literarioa / Creación artística y literaria</i>
		9004- <i>Ekitalde aretoen kudeaketa / Gestión de salas de espectáculos</i>
		9102- <i>Museoetako jarduerak / Actividades de museos</i>
		9103- <i>Toki eta eraikin historikoen kudeaketa / Gestión de lugares y edificios históricos</i>
		9104- <i>Lorategi botanikoen, parke zoologikoen eta erreserba naturalen jarduerak / Actividades de los jardines botánicos, parques zoológicos y reservas naturales</i>
	C6 - <i>Kirol- eta aisialdi-industria / Industria deportiva y recreativa</i>	9105- <i>Liburutegien jarduerak / Actividades de bibliotecas</i>
		9106- <i>Agiritegien jarduerak / Actividades de archivos</i>
		9311- <i>Kirol instalazioen kudeaketa / Gestión de instalaciones deportivas</i>
		9312- <i>Kirol klubuen jarduerak / Actividades de los clubes deportivos</i>
9313- <i>Gimnasioen jarduerak / Actividades de los gimnasios</i>		
9319- <i>Beste kirol jarduera batzuk / Otras actividades deportivas</i>		
9321- <i>Jolas parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak / Actividades de los parques de atracciones y los parques temáticos</i>		
9329- <i>Bestelako aisialdi eta entretenitzeko jarduerak / Otras actividades recreativas y de entretenimiento</i>		

1.3. Bigarren mailako iturriak

1.3. Fuentes secundarias

Euskal turismo-industriaren txostena eta markoa egiteko, bi informazio-iturritan eskuragarri dagoen informazioa erabili dira:

- *Alde batetik, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID) eragiketaren datuak, jarduera ekonomikoa Euskadin gauzatzen duten enpresa eta tokiko unitate edo establezimendu guztien informazioa biltzen duena, jarduera-sektoreen oinarritzko egiturazko informazioa emanez.*

Txosten honetarako, Euskadiko tokiko establezimendu edo unitateei buruzko datuak atera dira, udalerriaren eta JESN-2009ren arabera, 2008 eta 2023 urteen artean, lau digituekin.

Kontuan izan behar da jarraian datorren txostenak turismo-industriaren egitura eta profila azaltzen dituela, tokiko unitateak edo establezimenduak kontuan hartuta, eta ez enpresa-kopurua. Enpresa-erreferentzia bereko lokal bat baino gehiago egon daitezke.

Era berean, nabarmendu behar da erabilera turistikorako etxebizitza partikularretako etxebizitzak eta logelak (VUT/HVUT) uztailearen 3ko 101/2018 Dekretua argitaratu zenetik daudela araututa. Euskadiko Turismo Jardueren Erregistroan¹ 5.284 jarduera zenbatu dira, txosten honetan aztertutako turismo-eskaintzari gehituko litzaizkiokeenak, AEr en datuetan soilik.

- *Bestalde, euskal turismo-industriaren Gizarte Segurantzako afiliazioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Sailaren datuak kontsultatu dira Enfokatur Behatoki Turistikoaren webgunean. Kasu honetan, 2014tik eskuragarri dagoen serie historikoa, jarduera-talde berberekin EJSNren arabera.*

Para la elaboración del informe y marco de la industria turística vasca se ha contado con los datos disponibles en dos fuentes de información:

- Por un lado, los datos de la operación Directorio de Actividades Económicas (DirAE) del Eustat que recoge información de todas las empresas y unidades locales o establecimientos, que ejercen su actividad económica en Euskadi, proporcionando información estructural de los sectores de actividad.

Para el presente informe se han extraído los datos de establecimientos o unidades locales en Euskadi por municipio y CNAE-2009, entre los años 2008 y 2023, con cuatro dígitos.

Debe tenerse en cuenta que el informe a continuación expone la estructura y perfil de la industria turística teniendo en cuenta sus unidades locales o establecimientos, y no el número de empresas, pudiendo darse el caso de ser varios los locales que pertenecen a una misma referencia empresarial.

Asimismo debe destacarse que las viviendas y habitaciones de viviendas particulares para uso turístico (VUT/HVUT) están reguladas desde la publicación del decreto 101/2018 del 3 de julio. En el Registro de Actividades Turísticas de Euskadi¹ se han contabilizado 5.284 actividades que se sumarían a la oferta turística analizada en el presente informe, exclusivamente de los datos del DirAE.

- Por otra parte, para el caso de las afiliaciones a la Seguridad Social de la industria turística vasca se han consultado los datos del Departamento del Gobierno Vasco disponibles en la web del Observatorio de Turismo Enfokatur. En este caso, la serie histórica disponible desde 2014, con las mismas agrupaciones de actividad por CNAE.

¹Oharra: <https://www.euskadi.eus/ab63aAppWar/actividad/maint;jsessionid=NdN2DP8dINP3fePHtJEkqfFnIPj5MBbAaxu6pa-tYPEaKBVCct11058663901-679274095>

Nota¹: https://www.euskadi.eus/ab63aAppWar/actividad/maint;jsessionid=tvNw5d7DMABdRiDMZqcYAX_FW8pkizf4QP0eWF3G74PGo7i50k6Yl-6792740951105866390

2

Euskadiko turismo-industriaren enpresa-jardueren ezarpena eta bilakaera

Implantación y evolución de las actividades empresariales de la industria turística en Euskadi

2.1. Euskadiko turismo-industriaren kuantifikazioa eta bilakaera

2.1. Cuantificación de la industria turística en Euskadi y evolución

2023 urtea Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-industriari dagozkion epigrafeetako bati eskainitako 22.096 enpresa-jarduerarekin itxi zen. 2012tik izan den daturik onenetako bat da, baina ez da iristen azken 15 urteetako serie historikoaren abiapuntuko zifrara (2008koa), erregistratutako 23.529 jarduerarekin.


Hala ere, azken urteak establezimenduen kopurua % 1,5 igo dela erakutsi du, Covid-19aren pandemiaren eragin handieneko urteetako atzerakadaren ondoren ikusitako joerarekin jarraituz, 2021ean, kasu.

El año 2023 cerró con 22.096 locales de actividades empresariales dedicadas a alguno de los epígrafes correspondientes a la industria turística en la C. A. de Euskadi. Uno de los mejores datos desde 2012, si bien no alcanza la cifra de partida de la serie histórica de los últimos 15 años, correspondiente a 2008, con 23.529 actividades registradas.

El último año no obstante, ha dado muestras de un incremento en el número de establecimientos del 1,5%, continuando la tendencia observada tras el retroceso de los años de mayor afección por la pandemia por la Covid-19, como es el caso del año 2021.

2.1. Grafikoa. Euskadiko turismo-industriako establezimendu kopuruaren bilakaera (2008-2023 urteak)

Gráfico 2.1. Evolución del número de establecimientos de la industria turística en Euskadi (Años 2008-2023)



2.2. Euskadiko turismo-industriaren jardueren ezaugarriak


2.2. Caracterización de las actividades de la industria turística en Euskadi

Turismo-industriako establezimenduen Guztizkoaren % 6,3 ostatu-zerbitzuei dagokie. Bestalde, bidaia-agentziek eta bidaia-agentzia handizkariak % 3,2ko pisua dute guztizkoaren gainean. Jan-edanen zerbitzuak, ostalaritza, guztizkoaren % 54,5 dira. Azkenik, beste turismo-jarduerak, hala nola bidaiarien garraioa, ekipoen alokairua, kultura- eta kirol-industria, euskal turismo-sektorearen % 36,0 dira.


Del total de establecimientos dedicados a la industria turística, el 6,3% corresponden a servicios de alojamiento. Por otra parte, las agencias de viaje y operadores turísticos cuentan con un peso sobre el total del 3,2%. Los servicios de comidas y bebidas, la hostelería, representa el 54,5%. Por último, las otras actividades turísticas, desde el transporte de pasajeros como el alquiler de equipos, la industria cultural y deportiva constituyen el 36,0% del sector turístico vasco.

2.2 Grafikoa. Euskadiko turismo-industriako establezimenduen sailkapena jarduera-taldearen arabera. 2023. urtea.

Gráfico 2.2. Clasificación de los establecimientos de la industria turística en Euskadi por grupo de actividad. Año 2023.



2.3. Grafikoa. Euskadiko turismo-industriako establezimenduen sailkapena jarduera motaren arabera. 2023. urtea
 Gráfico 2.3. Clasificación de los establecimientos de la industria turística en Euskadi por tipo de actividad. Año 2023



- Ostatura bideratutako jardueren osaerak agerian uzten du hotelen eta antzekoen presentzia, hau da, ostatu-sektorearen guztizkoaren % 45,6, Euskadin 639 lokalekin. Oraindik ordezkari handiagooa dute turismo-ostatuak eta egonaldi laburreko beste ostatu batzuek, 695 lokal baitituzte, hau da, ostatu-eskaintzaren % 49,6. Bestalde, kanpinak eta karabanentzako aparkalekuen presentzia, baita beste ostatu batzuen ere, nahiko txikiagoa da, guztizkoaren % 2,0 eta % 2,9, hurrenez hurren.*
- Ostalaritzako azpisektorean, handienetako bat, edari-establezimenduen pisua nabarmentzen da, guztizkoaren % 61,9 baitira (7.452 establezimendu). Jatetxeen eta janari-postuen eskaintza ere garrantzitsua da, 4.298 unitate zenbatu baitira, hau da, % 35,7. Talde horretan sartzen dira, halaber, ekitaldiarako otorduak egiteko lokalak (% 1,2) eta bestelako janari-zerbitzuak (% 1,2).*
- Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien taldea EAEko turismo-industriaren % 3,2 izan zen 2023an. Azpisektore horren barruan, bidaia-agentziek dute pisurik handiena: 434 lokal, hamar jardueratik sei (% 60,5). Era berean, % 33,5 erreserba-zerbitzuei eta horiei lotutako jarduerari dagokie (240 lokal azken urtean). Bestalde, bidaia-agentzia handizkariak pisu txikiagoa dute, azken urtean 43 izan baitira (% 6,0).*
- Beste turismo-jardura batzuen taldean, garraioari lotutako epigrafeak daude dagozkien azpitaldeetan. Errepedezko garraioaren kasuan, jardueren % 87,5 taxi bidezko garraioari dagozkio, eta horrek 2.002 erreferentzia biltzen ditu lurraldean. Bidaiariak garraiatzeko lurreko beste garraioen ehunekoa txikiagoa da (% 9,5).*
- La composición de actividades dedicadas al alojamiento pone de manifiesto la presencia de los hoteles y similares, que suponen el 45,6% del total del sector alojativo, con 639 locales en Euskadi. Más representación tienen aún los alojamientos turísticos y otros alojamientos de corta estancia, que cuentan con 695 locales, el 49,6% de la oferta alojativa. Por otro lado, la presencia de campings y aparcamientos para caravanas, así como otros alojamientos es significativamente menor, representando el 2,0 y 2,9% del total, respectivamente.
- En el subsector de hostelería, uno de los de mayor tamaño, destaca el peso de los establecimientos de bebidas, que representan el 61,9% del total -7.452 establecimientos-. También relevante es la oferta de restaurantes y puestos de comidas, con 4.298 unidades contabilizadas, que suponen un 35,7%. Este grupo igualmente incluye los locales dedicados a la elaboración de comidas para eventos (el 1,2%) y otro tipo de servicios de comidas (1,2%).
- El grupo de las agencias de viajes y operadores turísticos, supone un 3,2% de la industria turística de la C.A.E. en el año 2023. Dentro de este subsector, el peso más relevante lo tienen las agencias de viaje con 434 locales que son seis de cada diez actividades (el 60,5%). Asimismo, un 33,5% corresponden a servicios de reservas y las actividades relacionadas con los mismos; 240 locales en el último año. Por su parte, los operadores turísticos tienen un menor peso, alcanzando la cifra de 43 en el último año (un 6,0%).
- Dentro del grupo de otras actividades turísticas, encontramos los epígrafes correspondientes a transporte en sus diferentes subgrupos. En lo que respecta al transporte por carretera, el 87,5% de las actividades se refieren al transporte de taxi que suma 2.002 referencias en el territorio. La presencia de otro tipo de transporte terrestre de pasajeros es menor, representando el 9,5%.

- *Bidaiarien garraiorako beste mota batzuen multzoak 135 jarduera ditu guztira, eta horren barruan sartzen da tren bidezko hiriko garraioa, jarduera nagusia, 83 unitaterekin – guztizkoaren % 61,5 –.*
- *Garraioarekin uztartutako jardueren atalean, lurreko, itsasoko edo barneko zein aireko bide nabigagarrietako garraioko zerbitzuak eta horiekin uztartutako beste jarduera batzuk sartzen dira. Horietatik guztietatik, "erantsitako beste jarduera batzuk" generikoaren pisua nabarmentzen da, 497 lokalekin.*
- *Lehen esan bezala, kultura-industria Euskadiko turismo-jarduera guztien % 10,8 izan zen 2023an, 2.390 establezimendurekin. Horien guztien artean, arte- eta literatura-sorkuntzaren garrantzia nabarmentzen da, 1.052 unitaterekin (kultura-industria osoaren % 44,0). Ondoren, arte eszenikoen establezimenduen % 27,2 daude, 649 azken ekitaldian, eta horiei % 13,1 gehitu dakieke, beren jarduera lagungarriak kontuan hartuta. Bestalde, EAEk 25 jarduera ditu ikuskizun-aretoen kudeaketan, 78 museoetan, 60 leku eta eraikin historikoetan eta 6 unitate lorategi botanikoen, parke zoologikoen eta erreserba naturalen kategorian.*
- *Azkenik, kirol- eta aisialdi-industriari dagokion enpresa-jardueren tipologia euskal turismo-eskaintza osoaren % 8,6 da, 1.911 erreferentziarekin 2023an. Talde horretan, 447 erreferentzietara iristen diren kirol-jarduerak % 23,4 dira. Horien artean gimnasioak nabarmentzen dira, kirol-industriaren % 14,9 hartzen baitute, 285 lokalekin. Bestalde, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak, oro har, % 21,9 dira, eta jolas-parkeen eta parke tematikoen jarduerak, % 5,3, 102 lokalekin.*
- En el tipo de otro transporte de pasajeros que cuenta con 135 actividades en total, incluye el transporte interurbano por ferrocarril, actividad mayoritaria, con 83 unidades – el 61,5% del total-.
- En el apartado de actividades anexas al transporte se incluyen los servicios al transporte terrestre, marítimo o por vías navegables interiores, aéreo y otras actividades anexas. De todas ellas, destaca el peso del genérico “otras actividades anexas” con 497 locales.
- Como ya se ha comentado anteriormente, la industria cultural representa el 10,8% del conjunto de actividades turísticas de Euskadi en el año 2023, con 2.390 establecimientos. De todos ellos, destaca el peso de la creación artística y literaria con 1.052 unidades, el 44,0% del total de la industria cultural. Le sigue, el 27,2% de los establecimientos correspondientes a artes escénicas, 649 en el último ejercicio, y al que podría sumarse el 13,1%, que suponen sus actividades auxiliares. Por otra parte, la C.A.E cuenta con 25 actividades dedicadas a la gestión de salas de espectáculos, 78 de museos, 60 de lugares y edificios históricos y 6 unidades, de la categoría de jardines botánicos, parques zoológicos y reservas naturales.
- Por último, la tipología de actividades empresariales correspondiente a la industria deportiva y recreativa representa el 8,6% del total de la oferta turística vasca, con 1.911 referencias en el 2023. En este grupo, un 23,4% lo integran las actividades deportivas que alcanzan las 447 referencias. Entre ellos destacan los gimnasios, que suponen el 14,9% de la industria deportiva, con 285 locales. Por su parte, las actividades recreativas y de entretenimiento en general, representan el 21,9%, y las actividades de parques de atracciones y parques temáticos, el 5,3%, con 102 locales.

2.1 Taula. Euskadiko turismo-industriako establezimenduak, A1, A2 eta B jarduera-motaren arabera. 2023. urtea

Tabla 2.1. Establecimientos de la industria turística en Euskadi por detalle del tipo de actividad A1, A2 y B. Año 2023

	GUZTIRA / TOTAL EUSKADI	
	Nº	%
5510- <i>Hotelak eta antzeko ostatuak</i> / Hoteles y alojamientos similares	639	45,6
5520- <i>Turismo ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk</i> / Alojamientos turísticos y otros alojamientos de corta estancia	695	49,6
5530- <i>Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak</i> / Camping y aparcamientos para caravanas	28	2,0
5590- <i>Beste ostatu batzuk</i> / Otros alojamientos	40	2,9
A1 – <i>Ostatu zerbitzuak</i> / Servicios de alojamiento	1.402	100,0
5610- <i>Jatetxeak eta janari postuak</i> / Restaurantes y puestos de comidas	4.298	35,7
5621- <i>Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako</i> / Provisión de comidas preparadas para eventos	139	1,2
5629- <i>Beste jaki zerbitzu batzuk</i> / Otros servicios de comidas	143	1,2
5630- <i>Edari establezimenduak</i> / Establecimientos de bebidas	7.452	61,9
A2 - <i>Jaki eta edari zerbitzuak</i> / Servicios de comidas y bebidas	12.032	100,0
7911- <i>Bidaia-agentzien jarduerak</i> / Actividades de las agencias de viajes	434	60,5
7912- <i>Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak</i> / Actividades de los operadores turísticos	43	6,0
7990- <i>Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak</i> / Otros servicios de reservas y actividades relacionadas con los mismos /	240	33,5
B - <i>Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak</i> / Agencias de viajes y operadores turísticos	717	100,0

2.2 Taula. Euskadiko turismo-industriako establezimenduak, C1, C2, C3 eta C4 jarduera-motaren arabera. 2023. urtea

Tabla 2.2. Establecimientos de la industria turística en Euskadi por detalle del tipo de actividad C1, C2, C3 y C4. Año 2023

	GUZTIRA / TOTAL EUSKADI	
	Nº	%
4931- <i>Bidaiaariak garraiatzeko hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa</i> / Transporte terrestre urbano y suburbano de pasajeros	68	3,0
4932- <i>Taxi bidezko garraioa</i> / Transporte por taxi	2.002	87,5
4939- <i>Beste inon sailkatu gabeko bidaiariaren garraiorako lurreko beste garraio mota batzuk.</i> / Otros tipos de transporte terrestre de pasajeros n.c.o.p.	217	9,5
C1 - <i>Bidaiaariak garraiatzeko lurreko garraioa</i> / Transporte de pasajeros por carretera	2.287	100,0
4910- <i>Bidaiariaren hirien arteko garraioa trenez</i> / Transporte interurbano de pasajeros por ferrocarril	83	61,5
5010- <i>Bidaiariaren itsas garraioa</i> / Transporte marítimo de pasajeros	20	14,8
5030- <i>Bidaiariaren garraioa barruko bide nabigagarrietatik</i> / Transporte de pasajeros por vías navegables interiores	18	13,3
5110- <i>Bidaiariaren aireko garraioa</i> / Transporte aéreo de pasajeros	14	10,4
C2 - <i>Bidaiaariak garraiatzeko beste garraio mota batzuk</i> / Otro tipo de transporte de pasajeros	135	100,0
5221- <i>Lurreko garraioarekin uztartutako jarduerak</i> / Actividades anexas al transporte terrestre	238	26,4
5222- <i>Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik egindakoari uztartutako jarduerak</i> / Actividades anexas al transporte marítimo y por vías navegables interiores	86	9,5
5223- <i>Aireko garraioarekin uztartutako jarduerak</i> / Actividades anexas al transporte aéreo	26	2,9
5224- <i>Salgaien manipulazioa</i> / Manipulación de mercancías	56	6,2
5229- <i>Garraioarekin uztartutako beste jarduera batzuk</i> / Otras actividades anexas al transporte	497	55,0
C3 - <i>Garraioarekin uztartutako jarduerak</i> / Actividades anexas al transporte	903	100,0
7711- <i>Automobilen eta ibilgailu motordun arinen alokairua</i> / Alquiler de automóviles y vehículos de motor ligeros	138	43,3
7731- <i>Makineriaren alokairua eta nekazal erabilera ekipoa</i> / Alquiler de maquinaria y equipo de uso agrícola	9	2,8
7732- <i>Makineriaren eta ekipoen alokairua eraikuntzarako eta ingenieritza zibilerako</i> / Alquiler de maquinaria y equipo para la construcción e ingeniería civil	139	43,6
7733- <i>Makineria eta bulegoko ekipoen alokairua, ordenagailuak barne</i> / Alquiler de maquinaria y equipo de oficina, incluidos ordenadores	11	3,4
7734- <i>Nabigazio baliabideen alokairua</i> / Alquiler de medios de navegación	22	6,9
7735- <i>Aireko garraioabideen alokairua</i> / Alquiler de medios de transporte aéreo	--	--
C4 - <i>Garraiorako ekipoen alokairua</i> / Alquiler de equipos de transporte	319	100,0

2.3 Taula. Euskadiko turismo-industriako establezimenduak, C5 eta C6 jarduera-motaren arabera. 2023. urtea

Tabla 2.3. Establecimientos de la industria turística en Euskadi por detalle del tipo de actividad C5 y C6. Año 2023

	GUZTIRA / TOTAL EUSKADI	
	Nº	%
9001- <i>Arte eszenikoak</i> / Artes escénicas	649	27,2
9002- <i>Arte eszenikoen jarduera lagungarriak</i> / Actividades auxiliares a las artes escénicas	314	13,1
9003- <i>Sormen artistikoa eta literarioa</i> / Creación artística y literaria	1.052	44,0
9004- <i>Ekitalde aretoen kudeaketa</i> / Gestión de salas de espectáculos	25	1,0
9102- <i>Museoetako jarduerak</i> / Actividades de museos	78	3,3
9103- <i>Toki eta eraikin historikoen kudeaketa</i> / Gestión de lugares y edificios históricos	60	2,5
9104- <i>Lorategi botanikoen, parke zoologikoen eta erreserba naturalen jarduerak</i> / Actividades de los jardines botánicos, parques zoológicos y reservas naturales	6	0,3
9105- <i>Liburutegien jarduerak</i> / Actividades de bibliotecas	177	7,4
9106- <i>Agiritegien jarduerak</i> / Actividades de archivos	29	1,2
C5 - <i>Kultura-industria</i> / Industria cultural	2.390	100,0
9311- <i>Kirol instalazioen kudeaketa</i> / Gestión de instalaciones deportivas	278	14,5
9312- <i>Kirol klubien jarduerak</i> / Actividades de los clubes deportivos	380	19,9
9313- <i>Gimnasioen jarduerak</i> / Actividades de los gimnasios	285	14,9
9319- <i>Beste kirol jarduera batzuk</i> / Otras actividades deportivas	447	23,4
9321- <i>Jolas parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak</i> / Actividades de los parques de atracciones y los parques temáticos	102	5,3
9329- <i>Bestelako aisialdi eta entretenitzeko jarduerak</i> / Otras actividades recreativas y de entretenimiento	419	21,9
C6 - <i>Kirol- eta aisialdi-industria</i> / Industria deportiva y recreativa	1.911	100,0

2.3. Euskadiko turismo-industriako jardueren azken aldiko bilakaera

2.3. Evolución reciente de las diferentes actividades de la industria turística en Euskadi

2.3.1. A1 Taldeko jardueren erreferentzia-aldiko portaera: ostatu zerbitzuak

2.3.1 Comportamiento en el periodo de referencia de las actividades del Grupo A1: Servicios de alojamiento

Turismo-industria osatzen duen jarduera-tipologia bakoitzaren xehetasunetan sakonduz, Euskadiko jarduera-azpisektore bakoitzak azken 15 urteetan izan duen bilakaera azter dezakegu. Ostatuari dagokionez, 2.4. grafikoak jarduerak gora egin dutela erakusten du, batez ere 2017az geroztik.

Turismo-zerbitzuen edo -eskaintzaren tipologia horren barruan, aipatzekoa da turismo ostatuen eta egonaldi laburrerako ostatuen eskaintzaren egituran izandako gorakada; izan ere, 2008an 370 establezimendu zeuden, eta aztertutako aldian ia bikoiztu egin zen (2023an 695); aldi arteko aldakuntza % 87,8koa izan zen. Hala ere, 2018an EJSNri beste ostatu batzuk esleitzeak behera egin du – 5590 kodea-, eta hortik ondorioztatzen da generiko horretako jarduerak egonaldi laburreko edo turistikoko ostatu-establezimenduan birkokatzea.

Hotelen eta antzeko ostatuen epigrafeak ere garapen nabarmena izan du Euskadin 2008tik, jardueren gorakada nabarmenagoa izan baitu 2018tik aurrera. Bestalde, kanpinak eta karabanentzako aparkalekuen azpisektoreak, kopuru txikiagokoak, ez du joera orokor hori gainditzen, eta indartu egiten du bere hornidura.


Descendiendo en el detalle de cada tipología de actividad que conforma la industria turística, podemos analizar la evolución de cada subsector de actividad en Euskadi en los últimos 15 años. En lo que respecta al alojativo, el *Gráfico 2.4.* evidencia el ascenso en las actividades, especialmente desde 2017.

Dentro de esta tipología de servicios u oferta turística, cabe reseñar el ascenso en la estructura de la oferta de alojamientos turísticos y alojamientos para corta estancia, que partía en 2008 de 370 establecimientos, llegando casi a duplicarse en el período analizado (695 en el 2023); una variación inter- período del 87,8%. No obstante, en el 2018 se produce un descenso en la asignación al CNAE de otros alojamientos – el código 5590-, de lo que se deduce la reubicación de actividades de este genérico en el alojativo de corta estancia o turístico.


También el epígrafe de hoteles y alojamientos similares ha experimentado un desarrollo destacado en Euskadi desde 2008, con un repunte de actividades más acusado a partir del año 2018. Por su parte, el subsector de camping y aparcamientos para caravanas, de menor número, no escapa a esta tendencia general, fortaleciendo su dotación.

2.4. Grafikoa. Euskadiko ostatu zerbitzuetako establezimenduen kopuruaren bilakaera. (2008-2023)

Gráfico 2.4. Evolución del número de establecimientos de servicios de alojamiento en Euskadi. (2008-2023)



2.5 Grafikoa. Euskadiko ostatu zerbitzuetako establezimenduen kopuruaren bilakaera, EJSNren arabera. (2008-2023)
 Gráfico 2.5. Evolución del número de establecimientos de servicios de alojamiento en Euskadi por CNAE. (2008-2023)



2.3.2. A2: Jaki eta edari zerbitzuen taldeko jardueren erreferentzia-aldiko portaera

2.3.2 Comportamiento en el periodo de referencia de las actividades del Grupo A2: Servicios de comidas y bebidas

Ostalaritzak pixkanakako beheranzko kurba erakutsi du azken 15 urteetan EAEn. Zehatzago, eskaintzaren egitura beherantz aldatu da edari-establezimenduei dagokien EJSNn; izan ere, 2008an 10.206 ziren eta 2023an 2.754 unitate gutxiago zenbatu ziren Euskadin. Aldi arteko aldakuntza -% 27,0koa izan da.


Aitzitik, jatetxe zerbitzuak, jatetxeak eta janari postuak, horiekin lotutako beste zerbitzu batzuk eta ekitaldietarako jatetxe-hornidurak gora egin dute Euskadin. Aipamen berezia merezi du azken talde horren aldian izandako hazkundeak, 73,8 ehuneko-puntu igo baita.

La hostelería ha mostrado una curva descendente paulatina a lo largo de los últimos 15 años en la C.A.E. Más en concreto, la estructura de la oferta ha variado a la baja en el CNAE correspondiente a los establecimientos de bebidas, que partiendo de la cifra de 10.206 en el año 2008, contabiliza 2.754 unidades menos en Euskadi en el año 2023. Una variación inter período del -27,0%.

Por el contrario, los servicios de restauración, restaurantes y puestos de comidas, otros servicios relacionados, así como la provisión de restauración para eventos, ha crecido en Euskadi. Mención especial merece el despegue experimentado en el período de este último grupo, que se cifra en 73,8 puntos porcentuales al alza.


2.6 Grafikoa. Euskadiko janari eta edari zerbitzuen establezimenduen kopuruaren bilakaera (2008-2023)

Gráfico 2.6. Evolución del número de establecimientos de servicios de comidas y bebidas en Euskadi (2008-2023)



2.7. Grafikoa. Euskadiko jaki eta edari zerbitzuen establezimenduen kopuruaren bilakaera, tipologiaren arabera (2008-2023)
 Gráfico 2.7. Evolución del número de establecimientos de servicios de comidas y bebidas en Euskadi por tipología (2008-2023)

- 5610-Jatetxeak eta janari postuak / Restaurantes y puestos de comida
- 5621-Aldez aurretik prestatutako janarien hornidura ekitaldietarako / Provisión de comidas preparadas para eventos
- 5629-Beste jaki zerbitzu batzuk / Otros servicios de comidas
- 5630-Edari establezimenduak / Establecimientos de bebidas
- Jaki eta edari zerbitzuak guztira / Total servicios de comidas y bebidas



2.3.3. B: Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkarien taldeko jardueren erreferentzia-aldiko portaera:

2.3.3. Comportamiento en el periodo de referencia de las actividades Grupo B: Agencias de viaje y operadores turísticos

Bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien azpisektoreari dagokionez, industria turistikoarekin erabat lotutako jarduera, aztertutako aldiko aldakuntzak % 14,6ko atzerakada erakusten du. Jarduera-azpisektore horrek eragin handia jaso du azken urteotan osasun-krisiaren eta pandemiaren ondorioz, eta serie historikoko establezimendu-kopuru txikiena lortu zuen Euskadin 2022an (691 establezimendu).


Bidaia-agentziak dira Euskadin azken urteotan gehien murriztu diren erakundeak, beheranzko joera nabarmenean. Aitzitik, bidaia-agentzia handizkariak, oro har garrantzi txikiagoa izan arren, hazkunde nabarmena izan dute (+% 72,0ko aldakuntza 2008 eta 2023 artean). Are nabarmenagoa da erreserba-lokalen eta horiekin lotutako jardueren gorakada, 2017tik aurrera nabarmentzen hasi baita.

En lo que respecta al subsector de las agencias de viaje y los operadores turísticos, actividad plenamente vinculada a la industria turística, la variación en el período de análisis muestra un retroceso del 14,6%. Un subsector de actividad que se ha visto fuertemente impactado en los últimos años por la crisis sanitaria y la pandemia y que obtuvo su mínimo de establecimientos de la serie histórica en Euskadi en el 2022 -con 691 establecimientos-.

Son las agencias de viaje, las entidades que en mayor medida se han reducido en Euskadi en los últimos años, en clara línea descendente. Por el contrario, los operadores turísticos, pese a ser de menor peso en el conjunto, han experimentado un crecimiento destacado (variación de +72,0% entre 2008 y 2023). Más notable aún es el incremento de locales de reservas y actividades relacionadas, que comienza a despuntar a partir de 2017.


2.8 Grafikoa. Euskadiko bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien establezimendu kopuruaren bilakaera (2008-2023)

Gráfico 2.8. Evolución del número de establecimientos de agencias de viaje y operadores turísticos en Euskadi (2008-2023)



2.9. Grafikoa. Euskadiko bidaia-agentzien eta bidaia-agentzia handizkarien establezimendu-kopuruaren bilakaera, tipologiaren arabera (2008-2023)
Gráfico 2.9. Evolución del número de establecimientos de agencias de viaje y operadores turísticos en Euskadi por tipología (2008-2023)

- 7911-Bidaia-agentzien jarduerak / Actividades de las agencias de viaje
- 7912-Bidaia-agentzia handizkarien jarduerak / Actividades de los operadores turísticos
- 7990-Beste erreserba zerbitzu batzuk eta horiekin uztartutako jarduerak / Otros servicios de reservas y actividades relacionadas con los mismos
- Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak guztira / Total Agencias de viaje y Operadores turísticos



2.3.4. C : Beste jarduera batzuen taldeko jardueren portaera erreferentzia-aldian

2.3.4. Comportamiento en el periodo de referencia de las actividades del Grupo C: Otras actividades turísticas

Oro har, beste turismo-jarduerak egiturazko balantze egonkorragoa dute lehen aztertutako beste talde batzuek baino. Azken 15 urteetan, aldi horretako aldakuntzak eskaintza % 5,8 hazi dela erakusten du.


Hala ere, jardueren aniztasunak bilakaera desberdina izan du denboran zehar, eta kultura-, kirol- eta aisialdi-industriak izan dira aktibo gehien lortu dituztenak. Garraioaren atalean, errepidezkoa ez den beste garraio-motak (trenbidea, airekoa edo itsasokoa) baino ez dira garatu urte hauetan.

En términos generales, las otras actividades turísticas presentan un balance estructural más estable que otros grupos anteriormente analizados. En los últimos 15 años, la variación del período muestra un incremento de la oferta del 5,8%.


Sin embargo, la diversidad de actividades ha experimentado una evolución diferente a lo largo del tiempo, siendo la industria cultural, deportiva y recreativa las que suman más activos. En el apartado del transporte, solo el otro tipo de transporte que no es el de carretera (ferrocarril, aéreo o marítimo) se ha desarrollado en estos años.

2.10. Grafikoa. Bestelako jarduera turistikoetako establezimenduen kopuruaren bilakaera Euskadin (2008-2023)

Gráfico 2.10. Evolución del número de establecimientos de otras actividades turísticas en Euskadi (2008-2023)



2.11. Grafikoa. Euskadiko beste jarduera turistikoko batzuetako establezimendu kopuruaren bilakaera tipologiaren arabera (2008-2023)
 Gráfico 2.11. Evolución del número de establecimientos de otras actividades turísticas en Euskadi por tipología (2008-2023)



2.4. Euskadiko turismo-industriaren Gizarte Segurantzako afiliazioak

2.4. Las afiliaciones a la Seguridad Social de la industria turística en Euskadi

Euskal AEko turismo-industria osatzen duten jarduera ekonomikoetako Gizarte Segurantzako afiliazioen datuak euskal turismo-sektorearen osasunaren beste adierazle bat dira. 2023. urtearen amaieran, emaitzek berretsi egiten dituzte aurreko epigrafeko jarduera ekonomikoari, horien garapenari eta bilakaerari buruzko datuek eskainitako adierazleek. Urtea turismo-industriaren sektorean alta emandako 107.549 pertsonekin itxi da, eta % 3,9ko gehikuntza izan du sektoreko aurreko urteko afiliazioen batez bestekoaren aldean.

Soldatapekoen afiliazioak 86.668 dira, eta autonomoen erregimeneko langileenak 20.881, batez beste. Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, urte arteko aldakuntzak erakusten du turismo-industriako afiliazioak % 5,1 hazi direla soldatapeko langileen artean. Aitzitik, autonomoen erregimenean kontabilizatutakoek % 0,9ko atzerakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta.

Euskadiko ostatu-sektoreko afiliazioak % 8,3 gehitu dira azken urtean, eta jarduera-mota guztietatik, urte arteko hazkunderik nabarmenena izandakoa da. Zehazki, afiliazioek garapen nabarmenagoa izan dute soldatapeko langileen atalean (% 9,0, autonomoen afiliazioen % 3,2ko hazkundearen aldean). Bidaia-agentziak eta bidaia-agentzia handizkariak dira afiliatuen urte arteko hazkunderik handiena izan duten bigarren jarduera-mota, ostatuaren motaren atzetik (+% 6,6).

